algorta

Martxoko 19ean, Gran Cineman, ume jaialdi bat egiteko zan, Lasarte ikastolako umeekaz. Baina jaiko izan ahal dogunez, atzeratua izan da, eta egun barria, Martxoko azkeneko igandea da, baa da 31an.

Eyan genuenez, eratzailea Patronato Aldai da.

"Ateneo el Abra" eratzaile dakarik, hitzaldi batzuk izan dira Getxoko Institutoan eta lehenengoa, Bizkaiko oleriklari buruz izan da eta parte hartu eben Gregorio San Juan eta Mari Carmen Ruizek.

Bigarrena, Bizkaiko Musikari buruz eta hizlaria Jose Ramon Rodriguez Lafnente.

Hirugarrena, Albisu jaunak emana, energiari buruz izan zan.

Otsailaren 21ean, Ondarreta abeshatzak kanta saio eder bat eskaini euskun Ondarretako (Las Arenas) Cinema Socialean.

Egia esan behar bada, bainbat entzule egoen eta denak oso pozik irten ziren.

"Semana Parroquial" dala eta, Redentor izeneko eliz barrian hitzaldi batzuk antolatuak izan dira eta bai kantu saio bat ere, Biotz-Alai abeshatzak emana.

Azkeneko orduan jakin izan ahal dogu atzeratua izan dala, kantu saioa behintzat.

TXUS

erronkari

IDOIA-EN JAIA

Kanpoko Idoiei eskeintzen zaien jaia ekainaren azkeneko igandean ospatuko da; larunbatean, done Petri egunean, asko dira ospakizunak. Isabako eta Ibar gurtiko Idoiek, Idciako gure Ama Birjiñoa ikustera etorriko diranei ongi-etorria egingo diete. Eta Erronkariar gisa jantzita datozenek Ama Birjiñari egingo zaion lore-eskeintzan parte artuko dute.

Jesus Arbeloa, gure apaiz jaunaren zuzendaritzapean jarduten du, orain ilabete batzu ezkerostik, eska-lantegia eta bertan bukatzen ari dira jaierako erronkariar andereen janzkeraz. Isabako andereen gogo bero eta trebetasunari eskerrak egin ahal izan da lan zail au. Jalegun ortan emangoz aiu merezi duen baliosa egindako lanari, eder antzeari dagokionez. Beste berrialdi batean xeetasun gelago emango degu, itxura daner, ospe aundiko izango dan Idoia-en billera oni buruz.

JAKINTZA-ETXEA

Osorik berritua, joan dan urtarrilaren 27an ireki zan, Iruñeko "Coral San José"k emandako musikaldi ederrarekin, Viamako Prinzeren eta Iruñeko Udaletxearen Aurrezki Kutxaren babespean.

EGUTEGI EDER BAT

(Aurten Nafarroako Aurreski Kutxaren 1974eko Egutegia nafar ermila eta erromerieí eskeinia dago. Kotore askotariko zenbait irudik Idoia, Arrako eta Muskildako festak dakarzkite. Badakar ere Iru Bigaren Zerga. Egutegi eder au ongi artuz izan da alderdi artan.

SARAITZU ERRONKARIKO ALMADIZAIEI OMENALDIA

Zangotzako Jakiniza Etxeak, Iruñeko agintari eta Saraitzu eta Erronkariko ordezkariekin batera, almadiazaiei omenaldi bat prestatzen ari dira: oraindik bizi direnei eta aurretik beren bizia arriskatu eta ihalan il direnei. Omenaldi au ongi artua izango da Nafarroa osoan. Baina ez genuke zuzenjokatuko Salbatierrako eta Siguesko talde alek aaztuko bagenitu, Erronkariko ainbeste almadia erabilli zituztenak eta oraindik ere aletako zenbait bizi diranak.

M.E.L.

azpeitia

EGUNEROKO-GERTAERAK

Gure bizitzan zehar egunetik egunera gero eta nabariago sumatzen dugu zorbitzu on baten behsrra. Lana bere bezain promistsua zaigu gaurregun gure herrietan zerbitzuak ongi antolaturik egotea. Gizarteak berak bere sostenegurako eskatzen duen zerbait balt da. Alabaina, sarri ikusi izan dugu geurko zibilizazio maluratsu hau, gizonsik gizartean bear duen baldintza gotor hau ukatzen. Bainan, kontuz!, gizarte batek behar dituen zerbitzuak; ez dira gizon guztientzat ukatuak. Ekonomiaren ardatzak eskuartean dituzten jaunek, diruz bapo hornituek, aisa arkitzen dituzte komeni zaizkien zerbitzuak! Beren somentzako munduko eskolarik aurreratuenak, sendagilorik sonatuenak, itsasortzetako egoitza apelaak, eta beste.

Gertakari orokor honen aurrean, beronen argiz ikusiko dugu Azpeitiko zerbitzuen egoera larria.

Nonbaitetik ahsi behar eta, has nadin sendakintza zerbitzua ajatzen. Azpeitiak hamaika mila biztanle inguru du gaurregun. Hiru mildiku, hirutarik bat azidentetarako eta beste biak seguroko gaixoen premietarako! Mediku biok, bakoitzak bere etxe edo bizitokian dadukate konsulta-lekua. Gela koskor bat bainbeste (agumentzat! Bisitalariak, nonbait egon behar eta, eskalleretan eseririk bi etah iru ordu luzetan itxoiten dute errezetaren esperantzan. Esperantzetan diot, zeren sarritan modikuaren gelara heldu baino lehen, mareatu, nekatu edo nazkaturik beren buruaz amortaturik madarikazio biziaz aldegiten dute. Ez dadukagu okulista bat ere. Hau ere lehenago bagenuen, bainan orain Azkoitira joan da. Nahiz eta lehenago oraino bini izan, hagin-konpontzailerik ere ez dugu herrian. Honetaz Zumaia eta Azkoitu askoz hobeto daude.

Ambulantziterako auto bat nola edo hala iraguratu zen. Honetan ere langile bakotzok, beste laguntza batzuen ondoan, geure sakoletik ordaindu beharra izan genuen. Eta ongi dakigu hartan salatu ginenok zenbat aztopo ukan genuen bidean.

Lehengo astean, Azkoitian eta Zestuan bi ambulatorio inauguratu diren. Bainan Azpeitian, nahiz eta egoera ezin larriagoa izan ez zen elkartu bere hauzoetara. Hemen kliniku partikular bat egin asmo omen dute. Lehenago ere esan dugu diruz hornituak arkitzen duteia soluzioa. Herri xehee geldittzen da atersbiderik gabe!

Gaur mila aldiz behar gehiago dago herrian ambulatorio on bateina, klinika partikularrarena baino. Hau, orain dela hiru urte egin genituen elkarrizketetan ere garbi azaldu zen!

Mediku baten gela ez dalteke linkatu gostgarren mailan, omakume-haurdun, zahar eta nokatu asko ibili behar duen tokia delako!

Herri mallan beste problema sakon bat, industri-hondsklnek eortu du. Herriaren bihotzean finkaturik dagoen industria batek aspeldidanik agindu omen zuen kolurrunaren arazoa zuritzea. Guk, urtea joan eta etorri, lehenean ikusten dugu problema eta kelurrinaren erasoa eta kutsadura geroz eta herritar gehiagok jasan behar! Zenbait sasi-konponketa entzun ditugu arazori gagozkiola; bainan gure uste apalez, industria hori lekuz alde ez bodadi soluzio guztiak ez dute zinki buruzterik izanen.

ANATSAN

pasai donibane

URRE-EZTAIAK

Bonantza hauzoan dugun eliza xarmanta, gutiz apaindue ikusi genuen Martxoaren 10ean. Ez zen gutxigorakof; izan ere, orain dela 50 urte (berrogeita hamar urte halajainat) eliza ber-beran ezkondu baitziren, JOXEPA ALDASORO eta LUIS LOPETEGI senar-emazte jatorrak. Hau dela-eta, omenaldi berezi bat eskolni zieten seme-alabek.

Herriko ume talde batek, Dn. Felix apaizaren zuzendaritzapean, zenbait bertso eta kantu eskeini zizkien, kitarra eta guzti lagunduaz. Beren biloba Joxe Manuelek ere (ikastolaren hazia fruituak amaten ari zeizkigu), bertso jario oderra agortu zuen.

Meza ondoren, bere seme-alabez eta bilobaz inguraturik, Kamera Jetetxean, bazkari ederrean bildu ziren giro atsegin bat sortuaz. Hor bezate Joxepa eta Luisek gure zorionik beroena. Jainkoak, elkarren ondoan luzaz eta gozo bizitzeko oassuna eman diezaiela!

BIZIMODUA GORUNTZ

Ez nolanahi gainera, arranoat Urte berri zoriontsua opa genion 1974 urteari; baina, «zoriontsu» ez balino «zorigaitzeko» bihurtu zaigu, bizimoduari dagokionez behintzat.

Egunetik egunera, bizimodua geresttuz doakigu eta dirudienez abiade aldapetsu honek, ez du geldizeko itxurarik.

Ogia, butanoa, azukrea, argia, gasolina, olioa eta aber, zeruru igo zaizkigu aballa bizian. Esaterako, olioa. Dendari batek esaten zigunez, familia gehienek «Girasol» delako olioa (36 pezetakoa) erosten omen zuten. Olio honek, egun, 42 pezeta baino du; baina, dendarien artean, tantoka banatzen dutenez gero, satorra bezain zaila izaten zaigu erostea. Olioa premiarkoa dugu, eta ez dago beste haukerarik: «soja» delakoa erosi (36 pezetakoa) ala «oliva» delakoa (68 pezetakoa). Alde ederra zegok!

Zergatik garestitze hau? Petroleoa merio dela-eta, ez ote da izan premiazkoa artikuluak altxatzeko, primerakoa aitzakia? Zergatik agintariek jarri zieten langile soldatei bakarrik muga, inflazioa geldi-arazteko asmoz, berek zioteneg?

Beste aldetik, soldata altxatzen badute ere, nagusiek kostoa goratzen dute, bizimodua barriz ere garestituz. Horra bada, betiko gurpil zonan sarturik.

Izango ote da irtenbiderik, guzi hau konpontzeko?

GARIZUMAKO HITZALDIAK

Garizumen sartuak garenez gero, zenbait hitzaldi antolatuak izan dira bai elizan, bai zine gelan, asteerteetan eta astegunetan.

Gure herrian, dirudienez, euskaldunik ez da bizi, zeren hitzaldi hauek, erdera hutsean ematen bai dira. Betiko felesa jokina: «Denek erderaz bazekitek eta merezi al dik euskaraz ematea?». Eta denok patxada ederroan geratzen gaituk. Herrian ditugun apaizek, sakonki aztertu edo analizatu behar litteke arazo edo problema hau.

Urrengo baterako, antolatuko ahal dute euskarazi Guk behintzat, itxaropen osoa dugu.

ERRENTERIATIK

Martxoaren azken astean, agintarien baimena lortu eta gero, EUSKAL ASTE KULTURAL bat antolatzeko dira errenteriarrak.

Hitzaldiak, filmak eta abar izango omen dira. Gure herriko kale nagusian, ikus dezakezu programa osoa.

Laga ditzagun aide batera aturiak, txikiteosk, jolasak... eta jo dezagun Errenteriara, dugun euskoi kultura kaxkarra esetzera.

IRALURRETAK

elgoibar

ELGOIBARREK BEHAR DITUENAK

Badira Elgoibarren gizarte eta kultura aldetik kezka izan eta zerbait egin nahi duten taldeak. Orain dela egun gutxi, talde horietako bilera batetan azaldu ziren, gure herrian, gure herrian osatu gabe edo falta diren gauza hauek:

a) *Giza bizitzak.*—Gure herrian prolema larri bat dugu hau. Eraskuskal aletxo bat bezala agertuko dugu. Joan zen astean ikusiriko gertakizun bat. Bizileku, baten jabe izateko, ondo ordainduta dudarik gabe, gau osoa pasa zuten zutik kalean ofizina batetako ate ondoan, jabetasuna lortzeko behar zuten txartela hartzearren.

Aurrerakoan gau bat baino gehiago galduko diduzte diru ordainketaren buruhausutea dela eta. Bainan etxe bizitzez, zehatzago idatziko dugu urrengo batetan Jaungoikosk lagun.

b) *Osatu gabekoekin jarraituz izentatu ziren ikastola etxe, E.G.B. omateko eta batxiller nagusiaren-tzat instituto bat ere bai.*—Euskaldunkastolarentzat etxea egiteko, P.M. Urruzuno Irakaskintza Koperatibak eraginda, laister izanen dugu kanpaina berezi bat, eta herri guztiak srantzun jator bat emango diola espero dugu.

Instituto etxeak, geldik jarraitzen du. Udazkenaren hasieran entzun genuen egileen eztabaidak konpondu zirela, eta obrak berehala martxan jarriko zirela, bainan oraindik ez dugu inor lanean ikusten.

d) *Bizitza guztia lan eginez igaro dutenentzat, behar beharreko de solas etxe bat.*—Premia hau dela eta, zenbait hartu eman izan dira. Seguridade Sozialeko goi mailako gizon bategaz, bai udaletxe aldetik, bai guraso aldetik. Guraso ordezkari bat, asuntu hontaz alkatearekin mintzatu zen. Honek jakin arazi zion, udaletxeak aurrera zeramala asuntu hau, eta trankil egoteko bide onetik zihoala eta. Jakin dugu, jubilatu etxe hau egiteko, udaletxea proieto bikain bat egiten ari dela. Dorre haundi bat leku egoki batetan, eta beraren behsak solas ederrak antolatzeko. Gu beldurrez gara ametsa lainotan galduko ez ote den proieto zoragarri hori.

e) *Beste zenbait herritan bezala, gurean ere falta dira kultur, solas, eta elkar hizketako lekuak, adin guztientzako.*—Guraso-bazkidea kezkatuta dago arazo hontaz. Zalla benetan, eginkizun hauei irtenbide bat emateu, herriak elkartasun eta herrigintzako kontzientzia gehiagorik ez badu.

f) *Baserritarren bazterkestez (Marginación).*—Badira kaletarrak, baserriaren egoerari buruz ardura eta kezka dutenak. Posa ziren gure ustez baserritar eta kaletarren artean ezin ikusia egoten zen denbora haiek. Orainge giroa beste bat dela esan genezake. Denok dugu baserriaren etorkizunaren ardura eta beldurra. Baserriak aurrera segi dezala nahi dugu. Ekonomi aldetik baserriak kales osatzen du. Janari sortzaile bezala behar beharrezko dugu. Gure Euskal Herri aldetik begiratzen badiogu, ikusten dugub asarria oinarri tinko eta euskarri bikain izan dela gure herriarentzat. Beraz ezin alde batetara baserria utz. Zer egin kaletarrok baserriaren alde. Batibat baserritarren gorabeherez interes gehiago izan.

Elkarteetan baserritarrak kontuan eduki eta abar. Baserrian etorkizunaren buruz bide berriak urratu behar ditugu. Asteroko hontan, orain dela gutxi, Juxe Alkizak bere idazkian, Europako nekazarien elkarteak bakarkako baserri bati eman dioten urrezko medalla, danen eredutzat jarriaz, berri ematen zigun, eta irakaste den J.J. Jarquek Madrilen esandakoak ere bai. Bi gauza ditucinarritzat baserriak. Baserritarrak ofizioa ondo jakin eta baserriak lurrez eta diruz osatua agun, dio Jarquek. Holek biak izan ezkero ez da familia batena bezelako baserri-enpresarik. Gauzak ondo doazenean egingo du dirua, eta, gaizki doanean eutsiko dio egoerari. Bai ote? Guk ezer gutxi dakigu baserriaz, baina uste dugu ahaztu egin zaizkiola oinarri pare bat. Ez da nahiko lurrez eta diruz osaturik egotea, ez eta ore ofizioa jakitea. Lana gogoz egiteas, nahi eta nahiezkoa da, bai senarmazteak eta semeak ere bai, ez baserrik asteagunetan, baita jai egunetan ere. Ez du oporrik ez eta zahartzarorako erreterirorik ere.

Beste oinarri bat ere beharrezkoa zaio. Beneteko bokazioa izatea. Kaleko langileak dituen aurrerapen, lanorduak, bizimodua etabar, ikusita, oraingo gazteak, bai mutil eta neskak, gero eta gutxiago dira baserrian jarraitzeko asmotan. Baserriko etengabeko lanak, nahiz alderdi on batzuk izan, gizonekiko askatasuna, kanpoko gorbitasuna eta edertasuna eseie batetarako, hilaere kaleko langileaz konparatuaz, kalerako gero eta bultzada haundiagoa senditzen dutelakotan daude. Langile diranez, besteak baino gutxiago ez lirakete ezertan izan behar eta bakarka ez dokigu baserritarrak kaleko langileen aurrerapenak nola lorituko dituen.

SABIN OSORO

zaldibi

PELOTA LEKUA

Pelota leku berri bat egiteko otsak ba ziran gure herrian, baina hori hots hutsean, amets hutsean geldituko iaango da noski; bestela ez ziran jardungo ari diran bezela lehengo frontoi zaharraren paretak txukindu eta berdintzen. Hori da ezezkoaren seinaerlik nabarmenena.

Gure ustez ez litzake gehiegi eshatzea, beste ezertxo ez dagoenez gero, frontoi itxi bat. Baina hori badakigu noren esku dagon.

Dana dala premia bazeukan eta berdindu bat eman diote. Egurali onetan ederki... eta txarretan zer? Eskerrak saioiari. Besterik ez dagoen arte babes ederra egin leziaioke Herriari.

Herriko ondasunen arduradun zeratenok daukazute hitza.

Aurten ere "TORNEO INTER-PUEBLOS" deritzan txapelketa hertarako gazteak preparata behar lirake. Pelota jokua oso gogokoa izan da gure herrian, gaur egun zerbait atzeratuta baldin badago ere. Ea aurtent xapelketa irabazten degun, eta urrengo urterako pelota leku itxi bat egiten degu.

GIRO

irakurleak mintzo

S. MENDIBURUREN «SAN FRANZISKO XABIERREN BEDERATZURRUNEKO IRAKURRALDIAK» LIBURUXKARI OHARRA.

«ZERUKO ARGIA»an, otsailaren 17 eta martxoaren 10-ako zenbakietan irakurri ditut Adolfo Arejita eta Etxeberria'tar P. SJ jaunen bibliografia oharrak. Mendibururen lantxo horri buruz. Lantxo hori, Genaro de Soarrainek aipatzen du bere Catálogo de obras euskaras (1891) lanean, 132.orr. Baina Jasusen Bihotzaren debozioa-ren eraskin bezala liruke-an 1751an egin zen argitalpenean. Hau da S. Onaindiak bere Euskal Literatura (I), 1972, liburuan jasotzen duena, Ikus liburu honen 219. orr.

Yorke Argirre, SJ. jeunak 1922an argitara zuen S. Franzisko Xabier'en Bederatzurruneko irakurraldiak delako liburuxka, dena dela, lehen aldikoz bederatzurruna solik agertu zuen, bere ustez inoiz argitara gabea baiitz bezala. Aukera dutenak ikusi behako ditu bi bederatzurrunak, eraskin bezala eta solik argitaratuak lan berbera diren ala bi gauza desberdinak. Nik ez dut eskura 1751ko argitalpen hori.

Jakina da Arejita jauna baino lehen ere beste batzuk ohartuak zirela edizione hortaz. Liburuxka soil bezala, ez beste liburu baten eraskin bezala. Juan Anjel Etxebarria adiskideak eman zigun, bigarrenez argitaratuaz, Euskal idazleak. Mendiburu'tar Sebastian, *1968an. Gero, neronek ere eman nuen horren berri, liburu soil bezala, bibliografia hornigarri,* R.S.V. Amigos del País-ko Boletinean, XXVIII (1972, 387/388 orr.

Gure literatura zaharreko liburuak urri direnez gero, interes handikoak dira arkitzen ditugun berri emate hauek.

J.S.M.